CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

SO !

# klima

# clima

**Nola parte hartu behar du Euskal Herriak berotze globalaren aurkako borrokan? Garapen Kontseiluak gizarte zibileko eragileak mugiarazi ditu haien ikuspegiak partekatzeko eta proposamen zehatzak ekartzeko, Klima Plana landu aitzin.**

**Hemen aurkituko duzue lanen sintesia, begi hets-ireki batean = *So!***

# DIAGNOSTIKOA

- Euskal Herriko energia-kontsumitzaile nagusiak **habitata eta mugikortasuna** dira (% 37 eta % 36), **laborantza** da berotegi-efektuko gasen lehen igorlea (% 38)…

- **Euskal Herria oso emankorra da**: ondare naturalaren aberastasuna, ekonomia zirkularraren inguruko proiektuen dinamika, kalitatezko elikaduraren aldeko borondate sendoa, Euskal Elkargoaren eta herri anitzen mobilizazioa…

# DESAFIOAK

## 1.5°-ko emendatzearen ez gainditzea

- Berotze klimatikoa, **hemen berean landu behar den** mundu mailako borroka.

- Zeharkako palankak: **soiltasuna** eta ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko lotura.

- **Ereduzko elkargoak**: trantsizio ekologiko eta energetikorantz bideratu behar diren ondare eta politika publikoak.

# GURE PROPOSAMENAK

## Zer antolaketa iraunkor?

- Dagoen **hirigintza optimizatu** eta bizitegiak + mugikortasuna + ekonomia koherentzian ezarri.
- **Ingurumena** integratu hirigintza hautuetan (ura, bioaniztasuna...).
- **Hiriko eta hiri-inguruko laborantzari** leku garrantzitsua eman (lehentasunez baratzezaintzari eta fruituei...).

## Zer bilakaera behar du ekonomiak?

- Ekoizpen eta kontsumo aukerak **berriz hona ekarri** (energia, baliabideak, ekaiak), **berrerabilpen** aukerak.
- **Ekonomia berdea** lagundu: egurra, zura, mikro-hidroelektrizitatea, hondakinen berrerabilpena, ekologia industriala eta ekonomia zirkularra.
- **Lurralde mailako merkatua:** tokiko produktuak ahalik eta kontsumitzaile gehienengana saltzea erraztu.
- **Biharko lan eta trebetasunak**, trantsizio ekologiko eta energetikoan.

## Nolakoa izan behar da gizartearen mobilizazioa?

- **Trantsizio ekologiko eta energetikoan ez daudenak eraman:** enpresen, elkarteen eta bizilagunen aldaketa lagundu.
- **Gaitasuna garatu, ekiteko**: laguntzaileak eta bideratzaileak, jarduera sektoreen berdatze planak…
- **Herritarrak egunerokoan inplikatu:** hiriko baratzezaintza, herritarren behatokia, mugitzeko molde eztien kultura, soiltasun numerikoa…

CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

**Garapen Kontseiluak lurraldeko bizitza ekonomiko eta sozialeko 400 eragile baino gehiago biltzen ditu: herritarrak, erakunde sozio-profesionalak eta Euskal Herriko elkarte adierazgarriak.**

**Garapen Kontseiluak lurraldeko desafio handiei buruzko eztabaida publikoan parte hartzen du, eta bere ikuspegia eta proposamenak ekartzen ditu lurraldearen garapen edo antolaketa gai nagusiei buruz.**

**Euskal Herriko gobernantzaren eragile nagusietarik izan da 1994tik 2017ra eta, 2018az geroz, Euskal Hirigune Elkargoak bere politika publikoen laguntzeko eginkizuna eman dio. Ideia-laboratena da; gizarte-berrikuntzaren zerbitzura dago eta lurralde-dinamika berriak sortzen laguntzen du.**

1 Rue Donzac . 64100 Bayonne   Donzac Karrika,1 . 64100 Baiona
05 59 25 38 90 - cdpb@societecivile-paysbasque.com
www.societecivile-paysbasque.com